

8

Euskal purgatorioa iraungi zenekoa

Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea

izarrekoa@euskalnet.net

Sarrera-data: 2011-06-22 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Diglosia egonkorra posible den oso zalantzan jartzen du Joxe Manuel Odriozolak bere iritzi-artikuluaren, euskararen kasua “etnoziodio globalaren” baitan kokatuz. Horrela bada, euskara bezalako hizkuntzek zer-nolako “behar adineko lekua” izan behar duten (Mitxelenaren hitzak erabiliz) ez dago batere argi. Txostenak sortzen dizkion inpresioak iruzkinduz erreplika ematen dio Zalbideri, aitortuz, diglosiaren inguruan esaten dituenak onartzeko arazorik izan ez arren, errealitate soziolinguistikoaren definizio-irizpidean desadostasunak dituela. Bere ustez, arazoa ez dago diglosia berria aplikatzearen zailtasunean, baizik eta hegemonia linguistikoaren eremuan. • *Hitz-gakoak:* diglosia egonkorra, etnoziodio globala, konpartimentazio soziokulturala.

Abstract. On when the basque purgatory terminated. In his review, Joxe Manuel Odriozola casts great doubt on whether a stable diglossia could be possible when he puts the case of Basque into the context of “global ethnocide”. If that is so, it is not at all clear what kind of “adequate space” (to use Mitxelena’s words) languages like Basque need to have. He replies to Zalbide by commenting on the impressions that the report prompts in him, by admitting that although there is no problem in accepting what he says about diglossia, he does, however, disagree on the criteria for defining the sociolinguistic reality. In his view, the problem lies not in the difficulty in applying a new diglossia, but in the sphere of linguistic hegemony. • *Key Words:* stable diglossia, global ethnocide, sociocultural compartmentalisation.

Abia nadin *a priori* batetik, aurreiritzi edo, nahiago bada, tesi bat hartuko dut heldulekutzat. Hona alde aurretik zurkaiztu nahi dudan tesiaren adierazpen laburra: adierak adiera, diglosiaren kontzeptua baliagarria da gizarte tradizionalen egitura soziolinguistikoak hautemateko, baina ez du balio gizarte moderno gutziz konplexuetan aplikatzeko.

Aldez aurretikako iritzi-tesi horrekin jarraituz, pentsa dezadan Mikel Zalbidek diglosia kontzeptuaren adiera jakin baten argitan formulatu nahi digula euskararen etorkizun posible bat, eta hortik kanpo ez duela beste aukera handirik ikusten gure hizkuntzaren geroa bermatzeko. Oraindik ez dakit nire aurreiritziak gailenduko zaizkidan gogoeta honen bukaeran ala Zalbideren irtenbide-formulazioak nire egoskorkeria bertan behera uztera behartuko nauen. Gara dezadan, beraz, testu interesgarri hau irakurri ahala nigan txostenak sortzen duen dialektikarako hizpidea.

LEHENENGO INPRESIOA

Testua irakurtzen hasi eta hirugarren orrialdean honako hau jo dut begiz txostenean: “Beste hitzetan esanik, eta inor gutxi poztuko dudala ongi jakin arren, diglosiazko formulazio berritu bat hil ala biziko egin-kizuna dugu. Hori gabe jai du euskarak, hasi berria den mende honetan. Behar-beharrezkoa dugu konpartimentazio hori, handiak txikia jango ez badu”.

Diglosiaren formulazio berrituak zer argibide eskainiko didan oraindik ez dakidanez, bitartean nik neureari eutsiko diot neure lehendabiziko inpresio honetan. Hala, gizarte eta estatu aurremodernoen antolamendu soziala eta komunikatiboa oinarritzen duten botere-harremanek ez daukate, nire ustez, inolako zerikusirik egungo gizarte-harremanen komunikazio-izaera korapilatsuarekin. Horrenbestez, gurea bezalako hiztun-herri menderatuen zoritxarrerako, estatu modernoaren komunikazio-osaerak eta botere-izaerak ez dute aukerarik ematen diglosia egonkorraren arabera balizko glotopolitikarik ezartzeko. Oso oker ez banago, ustezko diglosia egonkorraren ilusioak gutxi du itxaropenetik eta gehiegi ameskeriatik.

BIGARREN INPRESIOA

TDagoeneko hamargarren orrialdean nago, eta hor Koldo Mitxelena-ren pasarte aski ezagun batekin egin dut topo. Hainbatek hitzetik hortzera darabilen mezutik esaldi hau aukeratu dut. Honela dio jatorrizko bertsiotan: “Así como nuestro pueblo necesita encontrar un lugar entre los

Diglosiaren kontzeptua baliagarria da gizarte tradizionalen egitura soziolinguistikoak hautemateko, baina ez du balio gizarte moderno gutziz konplexuetan aplikatzeko.

Ustezko diglosia egonkorraren ilusioak gutxi du itxaropenetik eta gehiegi ameskeriatik.

**Euskarak “behar
adineko lekuri”
lortu ote dezake
bihar-etziko
munduan
diglosia
egonkorriari
dagokion
konpartimentatze
-estrategiak
aplikatuta?**

**Azken
hamarkadetako
joera
soziolinguistikoa
nagusiak Euskal
Herrian
konpartimentazio
soziokulturalaren
aurkako frogaz
josita daude.**

pueblos, así también nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo, sin aventuras maximalistas”.

Mitxelenak gure herriari eta hizkuntzari opa ziona zentzuzkoa da, ohikoa zuen modu ederrean adierazia dago gainera, baina beldur naiz bere buruan diglosia egonkorriaren adieraren bat baldin bazegoen, ez ote zuen kolpe huts egin. Izan ere, milaka hizkuntzek munduan orain arte mendez mende nola iraun duten jakiteak ez digu askorik balio jadanik orain eta hemendik aurrera hizkuntza horiek, euskara tarteko, “un lugar suficiente” nola arraio eskura dezaketen jakiteko orduan. Beste modu batera esanda, hizkuntzen historian inoiz gertatu ez den fenomeno baten aurrean gaude, nahiz eta hizkuntzen galera betidanikoa izan. Egungo etnozidio globalaren ezaugarriak bereziak dira oso, hori diote adituek, eta hizkuntzen galeraren ezaugarri eta erritmo aparteko horiek determinatzen dute euskara bezalako hizkuntzek biharko munduan eskura izan dezaketek lekua. Damurik, lekuri eza.

Bigarren inpresioari darion galdera hau egitea zilegi bekit: euskarak “behar adineko lekuri” lortu ote dezake bihar-etziko munduan diglosia egonkorriari dagokion konpartimentatze-estrategiak aplikatuta? Oraingoz behintzat ez zait sinesgarria egiten baiezko erantzuna.

HIRUGARREN INPRESIOA

I
“Perspektiba soziolinguistikoa”-aren atalera jauzi eginda, Zalbideren parte honetan finkatu zaizkit begiak: “Ehunka urtean bizirik jarraitu dute ehunka (agian milaka) hizkuntzak, kasuan kasuko hiztun-elkartearen rol-harreman sorta osoa nork bere hizkuntzaren bidez garatu ez izan arren. Jardun-gune, rol-harreman, adierazbide eta situazio guztietan hizkuntza bat bere hiztun-elkartearen mintzamolde bakar ez izatea gauza bat da (hizkuntzen historia ezagunean arras ohikoa), eta hizkuntza zeharo galtzea, bestea. Bata (konpartimentazio soziokulturala) ez da ezinbestean, gure artean errazegi esaten bada ere horrelakorik, bestearen (luze-zabaleko *language shift* edo mintzaldatzearen) atalburu”.

Diglosiazko hizkuntz historia ezagutu gabe jardun izanak, diglosiaren alderdi positiboak ezkutuan gorde dizkigu. Horretan arrazoi osoa du Zalbidek. Ez genituen bereizten gizarte tradizionalen egitura soziolinguistikoa hartzen zituen formak, batetik, eta gizarte modernizatuan zituen ezaugarri soziolinguistikoa, bestetik. Guk begiz jo dugun Euskal Herrian, gure kultura soziolinguistikoa, izan ere, elebitasun sozial ordezkatzailea eta diglosiaren adiera gauza berbera ziren.

Nolanahi ere, ordea, azken hamarkadetako joera soziolinguistiko nagusiak Euskal Herrian konpartimentazio soziokulturalaren aurkako frogaz josita daude. Hamarkada horietatik ezer garbirik atera baldin badugu, hain zuzen, garai bateko mundu euskaldunaren guztizko desintegrazioa izan da, mundu edo mundutxo hura beregaina zen neurrian. Mundu zaharra zen hura, egituraz eta antolamenduz, ekonomiaz eta sare sozialez, kulturaz eta sinesmenez, gaurkoarekin zerikusirik ez zuena. Sistema soziolinguistiko zahar hartan, oraingoan ez bezala, Euskal Herriko lurralde batzuetan bederen, euskararen bizitasun etnolinguistikoa aski beregaina zen ahozko kulturaren gizarte-harremanak ehuntzeko jardunean. Idatzizko hizkuntza-erabilera, gauza jakina denez, ez zen funtsezko baldintza euskal sistema soziolinguistiko diglosiko hura bere hartan sortu eta birsortzeko.

Beldur naiz, beraz, “gure artean errazegi” nahasten ziren kontzeptuen auzia, hots, diglosiaren egonkortasuna eta elebitasun sozialaren iragankortasuna, azken batean, ez ote den oso bigarren mailako kontua; nolabait ere, euskarazko herriaren etorkizunerako hil ala biziko auzitik oso urrun egon daitekeen auzi bat, alegia. Edonola ere, oraindik ez dakit zer eman dezakeen diglosiaren inguruko eztabaida honek, Zalbideren proposamenak nolako azalpen-indarra eta erakarpina erakuts dezakeen, noan orrialdean joanda.

LAUGARREN INPRESIOA

Laugarren ataltxo honetan berriro ere Koldo Mitxelenaren itzala ageri da Zalbideren txostenean. Hitzez hitz jasota honako hau dio aipuak: “Zazpi Probintzietako hiztun guztiek eskualde, jardun-gune, harreman-sare, adierazbide eta situazio guztietan euskara hutsez (edo nagusiki euskaraz) egingo duten formulazioak ez digula balio. Erdal esparruak biltzen eta osatzen gaituen formulazio sinkretiko bat darabil Mitxelenak buruan; buruan eta, atentziaz irakurtzen bazaio, luman. Formulazio sinkretiko horri aplikazio bat baino gehiago eman dakioke: ezagunenetako bat, eta luzera begira definizioz iraunkorrena, *diglosia*. Horregatik dio Koldok, nahiago duela *diglosiaren purgatorioa ghetto-aren infernua* baino”.

Mitxelenaren proposamenak erdibide batera garamatza: euskararen hainbat eremu eta erabilera-esparru galduak galduta daudenez, berriro eskuratzea ia ezinezkoa denez, salba dezagun salba daitekeena. Estimatzekoa ere bada formulazio errealista hori mundu abertzaletik datozkigun nazio-eraikuntzaren inguruko ilusio hutsalak adituta. Estimatzekoa da, dudarik gabe, euskarazko nazioaren ezintasun-mugak ia gaindiezinak direla ohartarazteko adierazpen argigarri hori.

**Edo euskara
hizkuntza
hegemonikoa
bihurtzen da
lurralde osoan
edo zatiren
batean ala eus-
kaldungoarenak
egin du.**

**Diglosiaren
euskarria makulu
sendoa izan da
hiztun-herri
baztertu
askorentzat
munduan, eta
horri esker
bizitasun
etnolinguistiko-
aren jabe dira
oraindik batzuk.**

Guztiarekin ere, ordea, hizkuntza murriztuen eta ahulduen auzi honetan ez dago batere garbi erdibideko helburu zuhurra erakusten duen planteamendu errealista horren bideragarritasuna bera ere. Inpresioa dut, inpresio bat besterik ez, Mitxelenak eta euskaltzale askok gorroto duten formulazio “maximalista” ez ote den izango geratzen zaigun aterabide bakarra. Auzi honetan, gezurra badirudi ere, “muturreko” jarrera batek erdibidekoak baino bideragarritasun-aukera handiagoa duelakoan nago: hau da, edo euskara hizkuntza hegemonikoa bihurtzen da lurralde osoan edo zatiren batean ala euskaldungoarenak egin du.

Azal dezadan xehekiago aurreko adierazpen “burugabe” hori. Mendez mende egoera diglosikoan iraun duten hizkuntza murriztuen itxaropena ez dirudi diglosiaren bidezko iraupen partziala izan daitekeenik gurea bezalako gizarte-baldintzetan. Onik onenean, eutanasiaren bidean dagoke, heriotza onaren bidean alegia, hizkuntza menderatu askoren iraupen-arnasa. Ez zerurako eta ez infernurako dauden hizkuntzen atarramendua purgatorioa izan daiteke, baina purgatorioaren ezaugarriak ez dabilta infernutik urrun kasu honetan. Nik ez dut ukatuko, jakina, hizkuntza abaildu bat bizirik iraunaraztea ezinezkoa denik euskararen kasuan bezala, baina bizirik iraute horrek ez luke zerikusirik izango euskaraz gutxieneko duintasunez bizitzearekin. Hildurak jotako hizkuntza izango genuke halakoa, bizitza soziala ia osorik hizkuntza hegemonikoetan artikulatuta dagoen egoera soziolinguistikoa, eta horren ondoan bazter-funtzio sinboliko huts batzuk asetzeko erabiliko litzateke euskara edo dena delako hizkuntza. Enegarren lekua izango luke euskarak halako “irtenbide” batean, ez Mitxelenak opa zion leku duina.

Nire inpresioak oraindik lehengo lepotik dauka burua, beraz.

BOSGARREN INPRESIOA

Modernizazioak ez bide du errotik eraldatu botere soziolinguistikoaren izaera eta dinamika Zalbidereen begietan. Ikus dezagun: “Bistan da modernizazioa, eta bere lagun dituen fenomenoak (urbanizazioa, industrializazioa, eta abar) lehiakide gogorrek direla diglosia tradizionalarentzat, hainbat kasutan. Beti ez da ordea horrela. Sinplifikazio handia da gauzak horrela azaltzea. Urrutiago gabe, gauzak horrela izan balira lineal-lineal, Urola aldean (hots, erdararekiko elkarbizitza diglosikotik situazio hurbilena dugun eskualdean) aspaldi galdua genukeen euskara, eta Zuberoan edo Erronkarin L aldaera gisa osasun bete-bete. Horrela al dira gauzak?

Ez ezinbestean: urrutiago gabe justu alderantziz dira izan ere, inola izatekotan, gure etxeko zenbait gertakari ezagun”.

Arrazoi du Zalbidek: diglosiaren euskarria makulu sendoa izan da hiztun-herri baztertu askorentzat munduan, eta horri esker bizitasun etnolinguistikokoaren jabe dira oraindik batzuk. Urolaren adibideari dagokionez, berriz, ez nago hain seguru: oker ez banago, gurean nagusi den dinamika eta joera soziolinguistikoa ez da Urolan edo antzeko beste eskualderen batean egiazta dezakegun datua. Salbuespenetik gehiago du adibideak joera errealetik baino. Eta ondo gauza jakina da legeak beti di-tuela salbuespenak, baita soziolinguistikaren alorrean ere. Bestalde, Zuberoko eta Erronkariko egoeraz beteta dago mundua, galbidean dauden hizkuntza asko eta asko ez baititu modernizazioak soilik hartaratu.

Aldagai anitzekoa omen da diglosiaren zer-nolakoa, “fenomeno sozial konplexua”. Baliteke. Baina, guztiarekin ere, oraindik neure egoskorkeriari narraio. Aldatuko al dit neure iritzia Zalbidek irakurtzeko falta zaizkidan orrialdeetan?

SEIGARREN INPRESIOA

Irakurketa honen buruan Zalbiderekin bat ez banator ez da izango diglosiaren kontzeptuak hartara eramango gaituelako. Ez. Beste zerbaitegatik izango da. Ados bainago, besteak beste, ondorengo esaldi honetan ere: “Galera-iturri ez baina justu alderantzizkoa gerta liteke *diglosia*, gurea bezalako hizkuntza-egoeretan bereziki: bizirik irauteko bidea, ez ezinbesteko heriobidea”.

Jakina, esaldi hori ezin dut onartu dagoen-dagoenean. Nire iritzian, hitz bat falta zaio. Eta hitz hori “ez” da: “gurea ez bezalako hizkuntza-egoeretan” izan beharko luke nire iritzian. Alegia, orain arteko eza-dostasunaren muina ez datza diglosia kontzeptuan bertan, baizik eta kontzeptu hori aplika daitekeen egoera soziolinguistikoa hautemateko ikuspegian. “Gurea bezalako” egoera soziolinguistikoa ezaugarritzen duen botere-harremanen ondoriozko komunikazio-sarearen izaerari buruzko iritzia dugu bestelakoa, inondik ere. Nik neuk ez daukat arazorik diglosiari buruz txostenean Zalbidek esaten dituen gauzak onartzeko, baina besterik da kontzeptuak hezurramitu behar duen errealitate soziolinguistikoa daukagun definizio-irizpidea. Zalbiderekin ustez gurea bezalako egoerei dagokie “bereziki” diglosiaren hizkuntza-politika, eta nire ustez doi-doi alderantziz da: hots, gure gizartearen komunikazio-egituraren izaerak ez du biderik ematen diglosiaren glotopolitikarrik egiteko.

Gure gizartearen komunikazio-egituraren izaerak ez du biderik ematen diglosiaren glotopolitikarrik egiteko.

**Egoera
diglosikoaren
iraupen-ahalmen
hori ere botere-
kontua da,
boterea, zentzu
zabalean, ez baita
inposizio-kontua
bakarrik,
iraupen-
ahalmena ere
bada, eta
diglosiaren
fenomenoan oso
argi ageri zaigu
komunitate
linguistiko
baztertuen
autonomia-
ahalmen hori.**

ZAZPIGARREN INPRESIOA

I

Agindutako karaktere-kopuruaren mugetara iritsi naiz, eta oraindik ez dut txostenaren parterik mamitsuena ukitu. Irakurri bai, guztia irakurria daukat orain.

Zer dio nik alde zurretik neukan “aurreiritziari” dagokionez Zalbidek? Hauxe, besteak beste: “Diglosia gizarte berrian zaila da edo harigarri zaila dela badakigu: aurreraxeago saiaturiko gara hori azaltzen eta zehazten. Zaila eta oso zaila izatea bat da ordea, eta erabat ezinezkoa beste bat”.

Zertan datza zailtasun edo ezintasun hori? Nire ustez, gizarte modernoaren izaeran, edo hobeki esan —marxismoaren hizkera zaharraz baliaturik—, sistema kapitalistan formazio sozialak eta produkzio-moldeak ezaugarritzen dituen harreman-motetan. Sistema sozioekonomiko zaharrea, tradizionala, sistema sozial hegemonikoak ez zituen erabat bere baitan integratzen berarekin batera bizirauten zuten mendeko produkzio-eredu eta formazio sozialak. Autonomia erlatiboaren jabe ziren azken hauek, nahiz eta zeharka sistema sozioekonomiko menderatzaileraren altzoan txertatuak egon. Autonomia erlatibo horrek egiten zuen posible, hain zuzen, hiztun-herri menderatu diglosikoen iraupena. Komunitate diglosikook mendeko izan arren, nolabaiteko botere soziolinguistikoaren jabe ziren, beren komunitate-bizitza ia osorik eratzeko ahalmen erlatiboa zuten neurrian. Beraz, egoera diglosikoaren iraupen-ahalmen hori ere botere-kontua da, boterea, zentzu zabalean, ez baita imposizio-kontua bakarrik, iraupen-ahalmena ere bada, eta diglosiaren fenomenoan oso argi ageri zaigu komunitate linguistiko baztertuen autonomia-ahalmen hori. Hortxe dago, inon egotekotan, diglosiapeko hizkuntz komunitate askoren mendez mendeko iraupenaren sekretua.

Zergatik ez da posible egungo Euskal Herriaren inolako konpartimentazio-politikarik euskaldungoari dagokionez? Euskaldungoak jadanik galdua duelako orain dela hamarkada batzuk arte eskualde batzuetan erroturik egon den euskakarazko egitura sozioekonomikoaren izaera autonomo erlatiboa. Oinarri sozioekonomiko autonomo horrek ahalbideratu izan du euskal komunitate diglosikoen iraupena. Diglosiaren auzia ez da, zentzu horretan, borondate onaren kontua, ezin da diglosia eredu *ad hoc* asmatu egungo egoerara egokitzeko. Errealitate sozioekonomiko eta kultural objektiboari darion auzia da diglosiaren fenomeno, errealitate horren araberakoa izaten delako mendeko hiztun-herrien iraupen-ahalmena. Horregatik esan behar da hizkuntza muriztua ez dutela hiztunek bakarrik “salbatzen”, ez dagoela horien kon-

tzientzia hutsaren esku, eta errealitate soziolinguistiko objektiboaren faktore nagusi batzuk alde behar dituela halakoak bizirik aterako bada.

Nire azken inpresioa: egungo herri euskaldun txikien “arnasguneek” ez daukate zerikusirik egitura soziolinguistiko diglosiko baten izaerarekin. Egitura soziolinguistiko diglosikoak gizarte-molde tradizionaletan mendeko ziren formazio sozial batzuen emaitzak dira, arestian esan bezala, eta azpi-gizarte oso bat artikulatzeko autonomia erlatiboa zeukaten eskueran. Aldiz, egungo Euskal Herrian hegemonikoa den erdal gizarte-egiturarekiko euskal arnasguneek daukaten autonomia erlatiboa hutsaren hurrengo da. Gainera, izatez, ezin dira definitu formazio sozial subordinatu baten arabera, ez baitira halako ezaugarrien jabe, ez baitaukate berezko bizitza sozioekonomiko eta kultural orokorrik, eta, horrenbestez, erabat zaugarriak dira inguratzen dituen dinamika soziolinguistiko erdaldunarekiko.

Iraungi zen, hortaz, betiko iraungi ere, euskal diglosiaren purgatorioa. Euskaldungoak bururik jasotzen badu, ez du alde horretatik jasoko, hegemonia soziolinguistikoaren eremuan erabakitzen baita gaur egun hizkuntzen merkatuan dagoen lehia gupidagabea. Nolanahi ere, nahiago nuke arrazoa Zalbideren aldean egotea, eta ez nirean, baina beldur naiz nahi ez dudan arrazoiaren jabe ez ote naizen. ●

**Egitura
soziolinguistiko
diglosikoak
gizarte-molde
tradizionaletan
mendeko ziren
formazio sozial
batzuen emaitzak
dira eta azpi-
gizarte oso bat
artikulatzeko
autonomia
erlatiboa
zeukaten
eskueran. Egungo
Euskal Herrian
hegemonikoa den
erdal gizarte-
egiturarekiko
euskal
arnasguneek
daukaten
autonomia
erlatiboa
hutsaren
hurrengo da.**